



AJMALINA-TESTARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza proba?

Elektrokardiograma konbentzionalak zalantza diagnostikoak sortzen dituenek, Brugada-ren Sindromearen susmoa badago, ajmalina zain barnetik emango dizute, aldaketa horren presentzia edo gabezia askoz ere seguruago bereizteko. Aldaketa horrek I. motako Brugada-ren patroia du izena elektrokardiograman.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da BARAURIK egotea proba egin baino 6 ordu lehenagotik gutxienez.

Gosariko ohiko botikak ur pixka batez har ditzakezu.

Diabetikoa bazara:

- Aurreko gauean ohikoa den intsulina-dosia hartu.
- Ez duzu diabetesaren aurkako pastillarik hartuko gosarian.
- Prozeduraren aurretiko INTSULINA AZKARRA ez hartu.
- Goizean intsulina basala hartzen baduzu (Levemir ®, degludek, glargina), hartu ohiko dosia PROZEDURAREN ONDOREN.

Hortzordea baduzu, proba egitean kendu egin beharko duzu.

Oso komenigarria da proba egunean senitarteko edo lagun batekin joatea.

Non egingo didate proba?

5. solairuan, AUO Txagorritxuko A eremuan.

Nola egingo didate proba?

Ohatilan etzango zaituzte, gorputza gerritik gora agerian izango duzula, eta elektrodoak jarriko dizkizute azterketa osoan zehar zure EKGaren erregistroa ikusteko, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat ere.

Erizainak zain-bide bat jarriko dizu, eskuineko besoan ahal dela, serum batean disolbatutako ajmalina emateko, eta pisura egokitutako dosi batean. Hurrengo ordu erdian hainbat elektrokardiograma egingo dizkizute, eta, trazadura zein den, kardiologoak elektrokardiograman alterazio hori dagoen ala ez ebaluatuko du.

Azterketaren iraupena aldakorra da, gutxi gorabehera, 20-30 minutu bitartekoa.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ospitaleratuta egongo zara proba amaitu ondorengo 2-4 orduetan.